



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 23a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroan Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko xedez. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Foru Administrazioan garbiketa zerbitzua kontratatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2010-2014), Kontuen Ganberak egina (5. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2016ko otsailaren 2ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuko xedapen gehigarrian laugarren puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“Xedapen gehigarria.

4. Presa aitortua izan eta DII 10 batekin informatu diren espedienteei eta departamentuan presa aitortua eman zain dauden espedienteei tramitea emanen zaie atxikitako diruzaintzako gerakien kargura.”

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroan Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko xedez.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, Nafarroan Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Nafarroan hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko xedez.

Jakintza eta heziketa ona gizartearen ongizate orekatuaren oinarria eta benetako etorkizuna dira. Hezkuntza garapen iraunkor eta bidezko baten berme bakarra da.

Hezkuntza zeregin kolektiboa da, partaidetza eta prozedura argiak eta partekatuak behar dituen. Horretarako, ezinbestekoa da adostasunak berrezartzea eta adostasun prozesurik ez egotea-

gatik desegiten joan dena berriro osatzea. Izan ere, adostasun prozesu horien ordez, noizbehinkako ekintzak gauzatu dira, bai krisi ekonomikoaren bai behar bezalako eta beharrezko adostasunik gabe prestatu diren legedien ondorioz.

Hezkuntzak egonkortasuna –legedi zein araudi arlokoa– behar du, baita helburuak eta baliabideak ere. Hori bakarrik lor daiteke, hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko handietan oinarritzen bada. Eta, horretarako, behar-beharrezkoa da gizartearen, Nafarroako hezkuntza-komunitateen, hezkuntza-eragileen eta esku-hartze zuzena duten pertsonen beren-beregiko partaidetza izatea. Izan ere, pertsona horiek esperientzia daukate, aukerak eskaini eta irekitzeko gai dena inbertsioa oparoaldian egiten den zerbait bihurtu ez dadin, murrizketa zorrotzik egin ez dadin edo baliabiderik ken ez dadin horiek urriak direnean, sarritan ez baitago denborarik aldeztatik egindako inbertsioak finkatzeko eta ez baita egin beharrezko plangintzarik.

Sistema publikoaren bidez hezkuntzarako eskubidea izateko aukera oinarria da bidezko gizarte batean; gizarte horrek, aukera-berdintasuna ez ezik, benetako kalitatea lortzeko aukerak ere izanen ditu, eta kalitate hori ez da mugatuko emaitza zehatz batzuk lortzera, nahitaezko jakintzak eskuratzeko orduan.

Nazioartean egindako analisi guztiek adierazi dute korrelazioa dagoela jakintzako inbertsioaren eta herrialdeetako garapen sozial eta ekonomikoaren artean. Hori dela eta, hori oso garrantzitsua da Nafarroako gizartearentzat. Jakintzaren gizarteari, berrikuntzari, produktibitatearen gehikuntza zorrotzari eta balio erantsiaren sorrerari begira jartzeko, oinarria Nafarroako gizarteak izan behar duen baliabide garrantzitsuenaren partaidetza aktiboa baino ezin da izan. Eta zein da baliabide hori? Giza kapital hezia, ekimenduna, emankorra,

eta Nafarroaren eraldaketa ekonomiko eta sozialeko prozesuari aktiboki laguntzeko gai dena.

Horregatik, garrantzitsua da Nafarroan hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat ezartzea, hezkuntza, zientzia eta kultura gizarte orekatu baten onotzat jotzen dituena. Gizarte horrek aukerak edukiko ditu eta bidezkoa izanen da, eta horrelakoa izatea lortzeko berariazko konpromisoak ekarriko ditu. Nafarroak erronka handia du aurrean: Herritarrek XXI. mendeko erronkei aurre egiteko ahalik eta baldintza onenak izan ditzaten, hezkuntzaren inguruan itun sozial, politiko eta instituzional handia lortu behar dute behin betiko, hezkuntza bizitza osoan zehar garatzen den esku-bidea den aldetik. Itun horrek unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema egonkorra ahalbidetuko du; sistema hori emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta ekitatean oinarritzen da, inklusibitatean finkatuta dago, emaitzen bikaintasunari begira dago, eta erakundeen lankidetzan datza, baita hezkuntza-erakunde guztiek etengabe hobetzeko agertu duten joeran ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, Nafarroan Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politiko bat lortzeko xedez. Lan-mahai hori tresna eta lankidetzabidea izanen da, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-eragile guztien (GEak, irakasleak, sindikatuak, parlamentu-taldeak, hezkuntza-erakundeak...) partaidetza izateko.

Nafarroako Parlamentuaren esparruan garatuko diren jarraipen, kontrol eta berrikuspen mekanismoen barnean, Nafarroako Parlamentuari berrir egokituko zaio Jarraipen Batzorde bat eratzea; batzorde horrek irismen orokorra daukaten protokoloak prestatuko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politikoan adierazten diren erabakiak ezartzeko. Horrez gain, Nafarroako Parlamentuak koordinazio tresna egokiak prestatu beharko ditu, hartzen diren jarraipen neurrien eraginkortasuna bermatzen dutenak.

Iruñean, 2016ko otsailaren 17an

Eleduna: María Chivite Navascués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru Administrazioan garbiketa zerbitzua kontratatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2010-2014), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Foru Administrazioan garbiketa zerbitzua kontratatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2010-2014), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Administrazioan garbiketa zerbitzua kontratatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2010-2014), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (6. or.).

II. Foru Administrazioaren garbiketa zerbitzuak (6. or.).

III. Helburua (8. or.).

IV. Norainokoa eta mugak (9. or.).

V. Ondorioak eta gomendioak (10. or.).

V.1. Foru Administrazioan garbiketa gastuak izan duen bilakaera (2010-2014) (10. or.).

V.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (11. or.).

V.3. Garbiketarako kontratuak arautzen dituzten baldintza-orri eta eskaintzak aztertzea (12. or.).

V.4. Metro koadro eta garbiketa-ordu bakoitzeko urteko kostua (13. or.).

VI. Egindako lanaren azterketa xehakaturia (14. or.).

VI.1. Garbiketaren arloko gastuaren bilakaera (2010-2014) (15. or.).

VI.2. Garbiketa zerbitzuen kontratazioari buruzko azterketa (17. or.).

VI.3. Metro koadro eta garbiketa-ordu bakoitzaren kostuaren kalkulua (22. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (25. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (25. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak onartu zuen, bere ekimenez, Foru Administrazioan garbiketa zerbitzua kontratatzeari buruzko fiskalizazio-txostena egitea, eta lan hori 2015. urteko fiskalizazio programan sartu zuen.

Lan hori martxotik ekainera egin zuen auditoriako hiru teknikariek eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostenak sei atal dauzka, sarrera hau barne; bigarreanean, Foru Administrazioaren garbiketa zerbitzuaren deskribapen orokor bat ageri da; hirugarrenak eta laugarrenak txostenaren helburua, norainokoa eta mugak biltzen dituzte; bosgarrenean, lanean lortutako ondorioak eta gomendioak aipatzen dira, eta seigarrenean, azkenik, analisi xehe bat egiten da egindako lanari buruz.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak ematen dizkiegu¹ Osasun Departamentuari; Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari; Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari; Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harrimenterako Departamentuari; Hezkuntza Departamentuari eta Sustapen Departamentuari.

II. FORU ADMINISTRAZIOAREN GARBIKETA ZERBITZUAK

Honako hauek dira Foru Administrazioaren egoitzetako garbiketa zerbitzuaren helburu nagusiak: baldintza higieniko-sanitario optimoak lortu, instalazio horien irudi egokiari eutsi eta eraikuntza- eta ekipamendu-materialak egoki mantentzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, zerbitzu hori funtsean enpresa pribatuekiko kontratuen bitartez ematen da; halere, Osasun Departamentuan, Hezkuntza Departamentuan, Gizarte Politiketako Departamentuan eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan langile berekiak daude.

Foru Administrazioaren plantilla organikoak, 2014ko abenduaren 31n, 292 lanpostu zeuzkan garbiketa zerbitzurako, honako xehetasun hauen arabera:

	2014	%, guztiaren gainekoa
Titularra, jabetzan	106	36
Aldi baterako betetakoa	157	54
Lanpostuaren erreserba	15	5
Bete gabeko lanpostu hutsa	14	5
Guztira	292	100

Zerbitzu hori ematearekin zuzenean lotutako gastuak hiru osagai dauzka: kanpoko enpresekiko kontratuak, langile berekien gastua eta materialak erostera bideratutako gastua. Azken horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago ezen, orokorrean, kanpoko kontratazioen kasuan, materialen gastua zerbitzua ematen duten enpresek hartzen dutela beren gain.

Ondoren hiru kontzeptu horietako gastua erakusten dugu, 2013an eta 2014an egina:

	2013		2014		2014/2013 aldea (%)
	Kopurua	%, guztizkoaren gainean	Kopurua	%, guztizkoaren gainean	
Kanpoko enpresen kontratazioa	22.832.648	73	22.820.574	73	-0,05
Langile berekiak	7.357.965	24	7.350.830	24	-0,10
Garbiketarako materiala	927.355	3	948.199	3	2,25
Guztira	31.117.968	100	31.119.603	100	0,01

¹ Gaur egun, Nafarroako Gobernuako departamentuen izenak aldatu dira.

Ikusten den bezala, 2014an Foru Administrazioak 31,12 milioi bideratu zituen garbiketara. Horietatik, ehuneko 73 zerbitzu horren kanpoko kontratazioari dagokio; ehuneko 24 langile berekietatik heldutakoa da, eta gainerako ehuneko hirua materialen erosketarako da.

2013an, bai guztizko gastua, bai haren osaera ia berak izan ziren.

GARBIKETA ZERBITZUAREN KANPOKO KONTRATAZIOAREN GASTUA

Gastu aipagarrienean zentratuta –garbiketa zerbitzuen kanpoko kontratazioarena da– honakoa izan zen 2013 eta 2014 urteetan Nafarroako Gobernuko departamentuetan izan zuen banaketa:

Departamentua:	2013		2014		2014/2013 aldea (%)
	Gastua	Gustizkoaren gaineko %	Gastua	Gustizkoaren gaineko %	
Osasuna	14.747.195	64,6	15.130.301	66,3	2,6
Hezkuntza	3.838.788	16,8	3.665.211	16,1	-4,5
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	1.711.732	7,5	1.682.617	7,4	-1,7
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	637.774	2,8	613.014	2,7	-3,9
Gizarte Politikak	639.883	2,8	569.400	2,5	-11,0
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	518.189	2,3	507.922	2,2	-2,0
Kultura eta Turismoa eta Erakunde Harremanak	534.037	2,3	484.174	2,1	-9,3
Sustapena	205.050	0,9	167.935	0,7	-18,1
Guztira	22.832.648	100	22.820.574	100	-0,1

2014an, Osasun Departamentua izan zen gastu handiena bildu zuena, ehuneko 66rekin; ondotik, Hezkuntza Departamentua dator, ehuneko 16rekin, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnekoa, ehuneko zazpirekin; kopuru horiek guztiak 2013koen antzekoak dira.

Gastuaren banaketa hori logikoa da, zeren eta zerbitzu horrek berebiziko garrantzia baitu aipatutako departamentuetan, diharduten jardura dela eta; bulegoetan ez ezik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan garbiketa funtsezkoa da osasun zentroen laguntza-kalitateko; Hezkuntza Departamentuaren kasuan, ikastetxeetako garbiketa jasotzen da; Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren kasuan, justizia arloko eraikin guztiak eta Foruzaingoaren polizia-etxeak daude bilduta. Gainerako departamentuetan, oro har, garbiketa funtsean bulegoetara dagokie, eta haietan gastua txikiagoa da.

Departamentuetan urtetik urtera dagoen aldea negatiboa da, salbu eta Osasun Departamentuan, non gastuak ehuneko 2,6 egin baitu gora. Jaitsiera aipagarrienak Sustapen Departamentuan eta Gizarte Politiketako Departamentuan gertatu dira.

GARBIKETARAKO LANGILE BEREKIETAN EGINDAKO GASTUA

2013an eta 2014an langile berekien gastua eta “pareko langileak” delakoan neurtutako pertsona kopurua honako hauek dira, azken horretan sarturik jardura hori lanaldi osoan aurrera eramanez luketen langileak:

Departamentua:	2013			2014			Aldea (%) 2014/2013	
	Gastua	Gustizkoaren gaineko %	Pareko langileak	Gastua	Gustizkoaren gaineko %	Pareko langileak	Gastua	Pareko langileak
Gizarte Politikak	2.646.695	36,0	97,85	2.652.621	36,1	97,34	0,2	-0,5
Osasuna	2.631.736	35,8	98,24	2.597.581	35,3	96,76	-1,3	-1,5
Hezkuntza	1.979.291	26,8	78,76	1.991.234	27,1	79,22	0,6	0,6
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	100.243	1,4	3,94	109.394	1,5	4,24	9,1	7,7
Guztira	7.357.965	100	278,80	7.350.830	100	277,56	-0,1	-0,4

2014an gastuek gora egin zuten 2013koen aldean departamentu guztietan, salbu eta Osasun Departamentuan, non ehuneko 1,3 egin baitzuten behera.

Garbiketa zerbitzua 277,56 pertsonarekin bete zen 2014an. 2013ko zenbatekoaren oso antzekoa da hori. Departamentuen arteko aldea negatiboa da Gizarte Politiketako Departamentuan

eta Osasun Departamentuan; positiboa da, berriz, Hezkuntza Departamentuan eta Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuan.

GARBIKETARAKO MATERIALEAN EGINDAKO GASTUA

Bestalde, honako hau izan zen garbiketarako materialetan 2013ko eta 2014ko gastua, departamentuen arabera:

Departamentua:	2013		2014		2014/2013 aldea (%)
	Gastua	Gutzizkoaren gaineko %	Gastua	Gutzizkoaren gaineko %	
Osasuna	726.218	78,3	759.012	80,0	4,5
Gizarte Politikak	142.602	15,3	141.016	14,9	-1,1
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	49.617	5,4	42.543	4,5	-14,3
Besterik (Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak; Ekonomia eta Ogasuna; Industria, Enplegua eta Sustapena)	8.918	1,0	5.628	0,6	-36,9
Guztira	927.355	100	948.199	100	2,2

Bai 2014an, bai 2013an Osasun Departamentuaren gastua handiena izan da, ehuneko 80ko portzentajearekin; horren ondotik Gizarte Politiketako dator, ehuneko 15arekin. Ez da sartu Hezkuntza Departamentuari dagokion gastua, zeren eta ez baita zenbatetsi, horretarako izan diren zailtasunak direla eta, txosten honetako IV. atalean azaldu bezala.

Osasun Departamentua kenduta, garbiketarako materiala erosteko gastua departamentu guztietan jaitsi zen; portzentajei erreparatuta, nabarmentzekoa da "bestelako departamentuak" atalari dagokion gastua.

III. HELBURUA

Lanaren helburuak hauexek dira:

- Foru Administrazioan garbiketarako gastuak 2010-2014 aldian izan duen bilakaera aztertzea.
- Garbiketa zerbitzuak kontratatzeko Foru Administrazioak egin dituen espedienteen lagin bat aztertzea.
- Aurreko kontratuetako baldintza-orrietan eta enpresa esleipen-hartzaileen eskaintzetan garrantzitsuentzat jotako alderdien betetzea aztertzea.
- Metro koadro bakoitzeko garbiketa ordu bakoitzeko kostua kalkulatzeko aztertutako esleipenetan.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; horien barruan, "Fiskalizazio operatiboari buruzko oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 300 araua eta "Betetzeari buruzko oinarrizko printzipioak" izeneko 400 araua aplikatu dira.

IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

Aurreko helburuak lortzeko, honako informazio hau aztertu dugu: Foru Administrazioaren garbiketarekin lotutako aurrekontu gastuak, 2010-2014 urteetakoak; Foru Administrazioaren 2013ko eta 2014ko langileen plantilla organikoa; eginkizun horietan diharduten Foru Administrazioaren langile berekien gastuak eta pareko langileen kopuruak, bi kasuetan Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak emanak; eta kontratuen esleipen-espediten honako lagin hau:

Departamentua:	Instalazioak	Esleipenaren urteko zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipen-urtea
Osasuna	O-NOZen menpeko hainbat zentro		
	1. lotea: Lizarrako Osasun Barrutia	1.208.644	
	2. lotea: Tuterako Osasun Barrutia	1.266.452	
	3. lotea: Ubarmin Klinika	743.671	2012
	4. lotea: Vianako Printzea Kontsulta Zentroa eta Alej. San Martín Doktoorea Osasun Zentroa	600.000	
	Osasun Mentaleko hainbat zentro	102.600	2013
Hezkuntza	12 esleipendunen 3 lote	177.277	2014
	Departamentuaren egoitza	115.771	2013
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	Nafarroako eraikin judizialak	374.157	2012
	Foruzaingoak Iruñean duen polizia-etxea	104.206	2012
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	Departamentuko bulegoak garbitzeko esparru-akordioa	Zenbatekorik ez	2012
	20 espeditente, aurreko akordioaren esparruan esleitutako 51 lokalekin	1.490.145	2012, 2013 2014, 2015
Kultura eta Turismoa eta Erakunde Harremanak	Karlismoaren Museoa	13.966	2014
	NAPIren eta Departamentuaren bulegoak	138.980	2015

Guztira, bost departamentu desberdinen 2012-2015 aldiko kontratazio-espeditenteak aztertu dira. 6.335.869 euro egiten dute.

Gainera, aztertu da ea zerbitzua emateko garrantzitsuenentzat jotzen diren alderdiak –aurreko esleipenetako baldintza-orrietakoak zein esleipendunen eskaintzetan jasotakoak– bete diren. Kasu honetan, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren esparru-akordioaren babesean esleitutako espeditenteei dagokienez, dauden 20 espeditentetik bost aukeratu dira betetze hori aztertzeko.

Lan hau egitean eragin duten mugek honako alderdi hauekin daude lotuta:

- Langile berekien gastuak: Foru Administrazioaren plantilla organikoan garbiketako lanpostu berariazkoak ageri dira, baina egiaztatu ahal izan dugu beste lanpostu batzuk badaudela zeinetan jarduera hori egiten den, sailkapen horren barruan egon gabe ere. Departamentu guztiei informazioa eskatu zitzaie, eta haiek zerbitzu horretan diharduten langileak dauzkaten gainerako lanpostuen berri eman ziguten; ez dugu egiaztatu pertsona gehiago dagoen zeregin horiek betetzen duenik.

Gainera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ezin izan digu eman langile berekien 2010eko eta 2011ko Gizarte Segurantzaren gastua, hura lortzeko izanen lukeen zailtasuna dela eta; izan ere, horrek txosten hau egiteko atzerapen nabarmena ekarriko zuen. Aipatutako urteei dagokien gastu hori zenbatetsi dugu, kontuan hartuta geroko urteetan langilerian eta Gizarte Segurantzaren egindako gastua; hori dela eta, uste dugu erabilitako datuaren eta datu erreala-aren arteko aldeak ez direla oso aipagarriak.

- Garbiketarako materialean egindako gastua: Hezkuntza Departamentuaren kasuan ez dugu zenbatetsi bigarren hezkuntzako institutuei eta lanbide heziketako ikastetxeei dagokien kopurua, zeren eta gastu hori "Unibertsitatez besteko ikastetxeen funtzionamenduaren finantzaketa" kontusailean sartzen baita, eta ezin baita kontusail horri egotzitako beste gastu batzuetatik bereizi. Aurreko kasuan bezalaxe, hura lortzeko atzerapen handia ekarriko zuen gura lanean.

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu:


V.1. FORU ADMINISTRAZIOAN GARBIKETA GASTUAK IZAN DUEN BILAKAERA (2010-2014)

Honako hau izan da Foru Administrazioan garbiketa zerbitzura bideratutako gastuak izan duen bilakaera, 2010-2014 urteetan:

	2010	2011	2012	2013	2014	2014/2010 aldea (%)	2014/2013 aldea (%)
Kanpoko enpresen kontratazioa	23.540.843	23.684.829	22.537.196	22.832.648	22.820.574	-3,1	-0,1
Langile berekiak	7.593.333	7.490.872	6.954.806	7.357.965	7.350.830	-3,2	-0,1
Garbiketarako materiala	1.234.303	1.127.954	1.066.550	927.355	948.199	-23,2	2,2
Guztira	32.368.479	32.303.655	30.558.552	31.117.968	31.119.603	-3,9	0,01

2014an 31,12 milioiko gastua izan zen; horietatik, ehuneko 73 zerbitzu horren kanpoko kontratazioari dagokio; ehuneko 23 jarduera horretan diharduten langile berekietatik heldutakoa da, eta gainerakoa materialen erosketarako da. Zenbatekoek 2013koen antzeko maileri eusten diete; halere, ehuneko lau inguru jaitsi dira 2010koen aldean; nabarmentzekoa da garbiketarako materialen jaitsiera, ehuneko 23koa izan baita.

Honako hau da gastuak departamentuen arabera nola dauden banatuta:



- Kanpoko enpresen kontratazioa

Gastu horrek aztertutako aldian batez beste 23,08 milioi euro egin zuen. Oro har, gastuaren ehuneko 65 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 17 Hezkuntza Departamentuari; ehuneko zortzi Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta gainerako ehuneko hamar gainerako departamentuen artean banatzen da.

Aztertutako aldiaren gastuaren ehuneko 70 hiru enpresen egindako jarduerari dagokio.

- Langile berekiak

Pareko langile berekiak, garbiketa zerbitzuetan dihardutenak, honako hauek dira aztertutako aldiaren:

	2010	2011	2012	2013	2014	2014/2010 aldea (%)	2014/2013 aldea (%)
Pareko langileak	303,68	301,06	279,50	278,80	277,56	-8,6	-0,4

Beren zerbitzuak ematen dituzten pertsonen kopuruan beheranzko joera bat dago; 2014an, 277,56 izatera iritsi dira, 2010eko datuen aldean ehuneko 8,6 behera egin ondoren.

Bai langile hauek, bai haien gastua ehuneko 36an Gizarte Politiketako Departamentuarenak dira; ehuneko 34an Osasun Departamentuarenak; ehuneko 29 Hezkuntza Departamentuarenak eta gainerako ehuneko batean Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarenak.

- Garbiketarako materiala

Kasu honetan, honako hau da garbiketarako materialen gastuaren banaketa:

	Osa- suna	Gizarte Politikak	Gainerakoa
Garbiketarako materialaren gastuaren ehuneko- koa (2010-2014)	80	15	5

Ikusten denez, Osasun Departamentua da gastu handiena egiten duena. Kontuan hartu beharra dago txosten honetako IV. atalean azaldutako muga, Hezkuntza Departamentuan gastu honi buruzko informaziorik ez edukitzeari buruzkoa.

V.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA

Nafarroako Gobernuak, kontratazioaren arloko organo eskudunen bitartez, bermatu beharko du esleitutako kontratuak eta egoera-orrietan haiei buruz islatzen den informazioa bat datozela araudi indardunarekin.

Halaber, Gobernua da kontratu horien kudeaketa eta erregistroan legeen ez-betetzerik eta iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela bermatzeko beharrezkoa den barne-kontrolaren erantzulea.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat ematea aztertutako kontratazio-espeditenteen esleipenaren legezkontasunari buruz. Horretarako, gure lana Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioei jarraituz egin dugu.

Printzipio horiek exijitzen dute fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagun halako moduz non arrazoizko segurtasun bat lortuko dugun aztertu dugun jarduera, Nafarroako Gobernuak kontratatutakoa, aplikatzekoa den araudiaren arabera izateari buruz, alderdi esanguratsu guztietan.

Gure azterketaren honako honetan etzan da: egiaztatzea, hautapropa eginez eta beharrezkoztat jo diren prozedura teknikoak aplikatuz, kontratazioari buruzko araudian ezarritako alderdi muntadunak bete direla. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne direla kontabilitate-erregistroaren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa eta aipatutako araudiaren ez-betetze aipagarriak.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasozten du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, aztertutako kontratu-esleipenak, Nafarroako Gobernuak 2012-2015 urteetan egin-dakoak, bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, kontratazio publikoari buruzko araudiarekin.

V.3. GARBIKETARAKO KONTRATUAK ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZA-ORRI ETA ES-KAINTZAK AZTERTZEA

Azterketaren xedea izan da 8. orrialdean adierazitako lagin hautatuan aztertzea garbiketa-kontratuak arautzen duten baldintza-orri eta eskaintzak. Zehazki, garbiketa zerbitzua ematen du-ten kanpoko enpresekiko kontratuak eta haien eskaintzak arautzen dituzten baldintza-orrien hiru alderditan zentratu gara, zeren eta funtsezkotzat jo baititugu zerbitzua emateko, eta kasuko es-leipenean puntuazioa eman baitzaie.

- Zerbitzuak ematen dituzten langileen gaineko kontrola

Oro har, Hezkuntza Departamentuan eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren lokalen batean izan ezik, Administrazioak ez du zuzeneko kontrolik egiten garbiketa zerbitzuak ematen dituzten langileak direla eta. Halaber, enpresak Administrazioari ez dizkio jakinarazten langileak direla-eta gerta-tzen diren gorabeherak edo aldaketak.

- Zerbitzuaren exekuzioaren gaineko kontrola

Hezkuntza Departamentuan, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuan, Le-hendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kasu batean (Foruzaingoaren polizia-etxea) eta Osasun Departamentuko beste kasu batean (Tutera) zerbitzuaren exekuzioa kontrolatzen da bal-dintza-orrietan eta esleipen-hartzailearen eskaintzan ezarritakoaren arabera; aztertutako lagina-ren gainerakoan, ez dago jasota halakorik egiten denik.

- Kalitatearen gaineko kontrola

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentua-ren kasuan izan ezik, oro har, ez dago jasota kalitatearen gaineko kontrolari buruzko baldintza-orrietako puntuak betetzen diren.

Bestalde, laginean jasotako kontratuak arautzen dituzten baldintza-orrietan aurreikusita ez bazegoen ere, O-NOZek, 2014an, zenbait alderdiri buruzko asebetetze-inkesta bat egin zion – alderdi horien artean, garbitasuna zegoen– senda-agiria emandako Nafarroako ospitale guztie-tako gaixoen lagin bati; honako hauek izan ziren emaitzak:

	Gelaren eta komunaren garbi-tasuna	Ospitalearen garbitasuna
O-NOZen batez besteko balorazioa	8,2	8,3

Galdetutakoen ehuneko 38k erantzun zuen, eta gaixoez gelaren eta komunaren garbitasunari emandako puntuazioa, bai eta ospitalearen garbitasunari emandakoa ere, aldekoa izan da, zortzi-tik gorako puntuazioekin; kontuan hartu beharra dago gehieneko puntuazioa hamarrekoa zela.

V.4. METRO KOADRO ETA GARBIKETA-ORDU BAKOITZEKO URTEKO KOSTUA

Ondoren azalduko ditugun emaitzak interpretatzeko, kontuan hartu behar dira kontratu bakoitzaren berariazko ezaugarriak, garbituko den lokal motaren, eskatutako garbiketaren maiztasun eta intentsitatearen, erabili beharreko materialaren eta abarren arabera. Horrek berarekin dakar departamentu bakoitzeko lortu diren kostuak konparagarriak ez izatea, instalazioak homogeneousak ez direlako. Hala eta guztiz ere, honako hauek dira departamentu bakoitzeko laginean sartutako kontratuen urteko batez besteko kostuak:

Departamentua:	Urteko batez besteko kostua		Urteko orduak/metro koadro
	Metro koadro bakoitzeko	Ordu bakoitzeko	
Osasuna	36,67	20,82	1,76
Hezkuntza	9,36	15,39	0,61
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegua	19,22	16,36	1,19
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	15,35	19,61	0,78
Kultura, Turismoa eta Erakundeekiko Harremanak	11,00	14,36	0,77

Osasun Departamentua da metro koadro eta ordu bakoitzeko batez besteko kostu handienak dauzkanak, bai eta metro koadro bakoitzeko orduen ratio handiena ere. Hezkuntza Departamentuak, aldiz, balio txikiak dauzka.

Lortutako ondorioak aztertuta, honako hauek dira gure gomendioak:

- *Behar diren baliabideak jartzea kontrolatze aldera baldintza-orrietan jasotako baldintzak betetzen direla eta zerbitzua emateari buruz esleipen-hartzaileek egindako eskaintzak betetzen direla.*

- *Ezaugarri homogeneousak dauzkaten instalazioen garbiketarako jarraibide edo irizpide komunak finkatzea, behar diren langileei, maiztasunari, garbiketaren intentsitateari eta abarrei dagokienez.*

- *Kontratazio bakoitzean prezioaren garrantzi erlatiboa baloratzea, esleipenerako gainerako irizpideen aldean, eta kasuan-kasuan kontratuak erantzuten dion interes publikoa zaintzeko egokitzat jotzen diren irizpideak ezartzea.*

- *Ondare Zerbitzuaren eta esparru-akordioaren babesean esleitutako lokalen arteko koordinazioa hobetzea, zerbitzu-ematea egoki kontrolatze aldera.*

- *Kasu guztietan, garbiketa-zerbitzua gainbegiratzen diharduten arduradun guztiei kontratua arautzen duten baldintza-orriak eta esleipen-hartzailearen eskaintza teknikoa eskuratzea, zerbitzuaren kontrola hobetze aldera.*

- *Kontratuak arautuko dituzten orrietan sartzea kontratuak irauten duen bitartean funtzionamenduan egonen diren instalazioei buruzko aurreikuspenak.*

- *Amaitzean dauden kontratuen esleipenak garaiz izapidetzea, saiheste aldera zerbitzuak eman daitezela kontratua amaituta dagoenean.*

- *Aplikatzekoa den araudian ezarritako bermeen zenbatekoak exijitzea.*

- *Aldizkako izaera eta izaera iraunkorra duten beharrak betetzeko kontratuen orrietan kontratuen balizko luzapenak aurreikustea, eta haiek sartzea kontratu horren balio zenbatetsian, berriz kasu kasuko esleipen-prozedura erabiliz.*

VI. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA XEHAKATUA

Aipatutako ondorioak lortzeko bidea eman duen lanaren azterketa xehakatu erakutsiko da ondoren.

VI.1. GARBIKETAREN ARLOKO GASTUAREN BILAKAERA (2010-2014)

Ondoren, gure ustez garbiketa-gastua osatzen duten kontzeptuen banakako bilakaerari buruzko azterketa egin dugu, 2010-2014 aldiari dagokionez:

VI.1.1. Kanpoko enpresen kontratazioa

Foru Administrazioaren ondasun arrunt eta zerbitzuetara bideratutako gastua, aztertutako aldiko urte guztien guztizko gastuaren ehuneko 14 inguru egiten duena, 532,49 milioi eurokoa izan zen 2014an; ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastu guztien ehuneko lau garbiketa zerbitzua kontratatzen bideratu zen. Ondoren, datu horiek zehaztuko ditugu, aztertutako aldiaren gainerakorako (euroak, milakotan):

	(euroak, milakotan)						
	2010	2011	2012	2013	2014	2014/2010 aldea (%)	2014/2013 aldea (%)
2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	575.082	513.100	555.216	523.190	532.492	-7	2
Kanpoko enpresekiko kontratuak	23.541	23.685	22.537	22.833	22.821	-3	-0,1
Kanpoko enpresekiko kontratuak 2. kapituluaren zenbat egiten duten (%)	4,1	4,6	4,1	4,4	4,3	-	-

Bistan denez, garbiketa gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko gastuaren guztizkoan egiten duenak ehuneko lauari eusten dio aztertutako urte guztietan.

Foru Administrazioaren garbiketaren guztizko gastuaren barruan, kanpoko enpresen kontratazioa da osagaririk aipagarriena, eta ehuneko 73 egiten du. Ondoren, gastu horren bilakaera erakutsiko dugu, departamentuen arabera, aztertutako aldiari dagokionez:

	Osasuna	Hezkuntza	Lehendakaritz, Justizia eta Barnea	Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua	Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	Gizarte Politikak	Kultura, Turismoa eta Erakundeekiko Harremanak	Sustapena	Guztira
2010	14.776.039	4.305.435	1.999.296	744.328	574.004	326.914	559.174	255.652	23.540.842
2011	14.677.516	4.390.247	2.120.634	741.087	579.020	323.362	608.673	244.289	23.684.828
2012	14.688.327	3.774.670	1.818.052	372.994	770.877	302.398	562.116	247.763	22.537.197
2013	14.747.195	3.838.788	1.711.732	637.774	518.189	639.883	534.037	205.050	22.832.648
2014	15.130.301	3.665.211	1.682.617	613.014	507.922	569.400	484.174	167.935	22.820.574
Guztira, departamentu bakoitzeko	74.019.378	19.974.351	9.332.331	3.109.197	2.950.012	2.161.957	2.748.174	1.120.689	115.416.089
Departamentu bakoitzeko ehuneko guztizkoaren gainean	64	17	8	3	3	2	2	1	100
Departamentu bakoitzeko ehuneko 2014ko guztizkoaren gainean	66	16	7	3	2	2	2	1	100

2014an, zerbitzu hori zerbitzu desberdinetako 68 hornitzailek eman zuten. Kopuru hori aldatzen joan da aztertutako aldiaren zehar, ondoren erakusten dugun bezala:

	2010	2011	2012	2013	2014
Hartzekodunen kopurua	126	64	80	65	68

Aurreko kopuruak gorabehera, hurrengo taulan erakusten dugu gastua, funtsean, zortzi hornitzailetan zentratuta dagoela, eta haiek 500.000 euro jaso zituztela emandako zerbitzuen truke.

Hartzekodunak	2013		2014	
	Gastua	Gastu guztiaren gaineko %	Gastua	Gastu guztiaren gaineko %
ISS Facility Services SA	8.929.187	39,11	8.960.337	39,26
Limpiezas y Servicios Maju SL	4.836.246	21,18	4.733.561	20,7
Eulen SA	2.710.969	11,87	2.581.228	11,31
Clece SA	1.758.955	7,70	1.706.056	7,48
Integración Servicios Nuevos SL	1.077.459	4,72	1.164.705	5,10
Accuae Servicios Integrales SL	915.970	4,01	902.541	3,95
Distrivisual SL	850.716	3,73	775.979	3,40
One Servicios Sociosanitarios SL	560.641	2,46	551.419	2,42
Guztira	21.640.143	94,78	21.375.826	93,62

Aurreko datuetatik, nabarmentzekoa da garbiketaren arloko guztizko gastuaren ehuneko 72 hiru enpresek garatutako jarduerari dagokiola.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da bai hartzekodunak, bai aipatutako gastuportzentajeak gainerako urteetakoena ia berdinak direla.

VI.1.2. Langile berekiak

Garbiketa zerbitzuaren zatirik handiena kanpoan kontratatuta badago ere, Nafarroako Gobernuak zenbait departamentutan jarduera horretan aritzen diren langileak badaude. Honakoa izan da aztertutako aldiaren garbiketaren diharduten pareko langileen bilakaera, departamentuen arabera:

Departamentua:	2010	2011	2012	2013	2014	2014/2010 aldea (%)	2014/2013 aldea (%)
Gizarte Politikak	108,26	106,63	99,70	97,85	97,34	-10,1	-0,5
Osasuna	99,76	100,44	93,36	98,24	96,76	-3,0	-1,5
Hezkuntza	91,72	90,05	82,51	78,76	79,22	-13,6	0,6
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	3,94	3,94	3,93	3,94	4,24	7,6	7,6
Guztira	303,68	301,06	279,50	278,80	277,56	-8,6	-0,4

Beheranzko joera bat badago zerbitzuak ematen dituzten pertsonen kopuruan; 277,56 dira 2014an, 2010ekoan aldean ehuneko 8,6 jaitsi ondoren. Gastuak behera egin du departamentu guztietan, salbu eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnekoan.

Langile horiei lotutako gastuak, departamentuen arabera eta aztergai dugun aldiari dagokionez, ehuneko 3,2 egin du behera, hurrengo taulan erakusten dugun bezala:

Departamentua:	2010	2011	2012	2013	2014	2014/2010 aldea (%)	2014/2013 aldea (%)
Gizarte Politikak	2.763.915	2.740.684	2.533.811	2.646.695	2.652.621	-4,0	0,2
Osasuna	2.584.490	2.547.668	2.359.908	2.631.736	2.597.581	0,5	-1,3
Hezkuntza	2.154.191	2.111.371	1.964.311	1.979.291	1.991.234	-7,6	0,6
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	90.738	91.149	96.776	100.242	109.394	20,6	9,1
Guztira	7.593.334	7.490.872	6.954.806	7.357.964	7.350.830	-3,2	-0,1

Mugei buruzko atalean jada aipatu dugun bezala, 2010. eta 2011. urteetarako Gizarte Segurantzaren gastua zenbatetsi da eskura dauden datu guztiak kontuan hartuta, zeren eta datu hori lortzeak atzerapen handia ekarriko baitzuen txosten hau egiteari begira. Gure ustez, datu errealak ez ditu modu aipagarrian aldatuko gure ondorioen emaitza.

VI.1.3 Materiala eskuratzea

Gastu hau garbiketarako materialak erosteari dagokio. 2014an 948.199 eurokoa izan zen. Ondorengo taulan azaltzen dugu zein izan den gastu horren bilakaera departamentuz departamentu:

	Osasuna	Gizarte Politikak	Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	Kultura, Turismoa eta Erakundeekiko Harremanak	Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	Sustapena	Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua	Guztira
2010	980.567	167.363	65.565	6.610	7.974	4.724	1.500	1.234.303
2011	871.352	169.093	67.722	6.569	7.599	4.911	708	1.127.954
2012	842.578	158.482	56.024	4.980	--	4.486	--	1.066.550
2013	726.218	142.602	49.617	2.861	--	5.588	469	927.355
2014	759.012	141.016	42.543	4.628	--	677	423	948.299
Guztira, departamentu bakoitzeko	4.179.727	778.556	281.471	25.648	15.573	20.386	3.100	5.304.461
Departamentu bakoitzeko ehunekoa guztizkoaren gainean	% 79	% 15	% 5	% 0,5	% 0,3	% 0,4	% 0,1	% 100
Departamentu bakoitzeko ehunekoa 2014ko guztizkoaren gainean	% 80	% 15	% 4	% 0,5	-	% 0,1	% 0,04	% 100

Mugei buruzko atalean aipatu dugun bezala, ezin izan dugu zenbatetsi kontzeptu hau dela-eta Hezkuntza Departamentuko bigarren hezkuntzako institutueta eta lanbide heziketako ikastetxeetan egindako gastua. Kontzeptu hau "Unibertsitatez besteko ikastetxeen funtzionamendurako finantzaketa" kontusailean beste batzuekin batera kontabilizatzeak eragotzi egiten du askotan be-
reiztea zein diren kontzeptu bakoitzaren gastuak.

VI.2. GARBIKETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOARI BURUZKO AZTERKETA

VI.2.1. Kontratazio espedienteen berrikuspena

Oro har, kontratatutako zerbitzuetan hiru oinarriko alderdi bereiz daitezke: instalazioen ohiko garbiketa, zenbait elementuren ohiz kanpoko garbiketa (kristalak, artxibategiak eta abar), zeinak maiztasun nabarmen txikiagoarekin egiten baitira, eta “orduen poltsa” izenaz ezagutzen direnak, non sartzen baitira lizitatuzaileek eskaintzen dituzten ordu-zenbatekoak: ordu horiek kostu gehigarririk gabe eginen dira Administrazioak eskatuta, inguruabar jakin batzuetan.

Aztertutako lagina hurrengo orrialdean ageri dena da. Hura hautatzeko irizpideak gastua departamentuz departamentu duen banaketa eta gaur egungo kontratuen indarraldia izan dira:

KONTRATUA	ESLEIPENAREN URTEKO ZENBATEKOA (BEZIK GABE)	ESKAITZA KOPURUA	PUNTUAZIOA		ESLEIPEN PROZEDURA	ESLEIPEN-IRIZPIDEA	BEHERAKADAREN EHUNEKOA	ESLEIPEN-URTEA
			ESKAITZA TEKNIKOA	ESKAITZA EKONOMIKOA				
O-NOZEN MENPEKO HAINBAT ZENTRO								
LIZARRAKO OSASUN BARRUTIA	1.208.644	3	50		IREKIA, EUROPAR BATASUNeko ATA-LASETIK GORA	ESKAITZARIK ONENA	8,48	2012
TUTERRAKO OSASUN BARRUTIA	1.266.432	3					2,69	
UBARMIN KLINIKA	743.671	4					0,27	
VIANAKO PRINTZEA KONTSULTA	600.000	5					7,68	
ZENTROA ETA SAN MARTIN DOKTORIA ZENTRO ANBULATORIOA								
OSASUN MENTALEKO HAINBAT ZENTRO	102.600	5	50		IREKIA, EUROPAR BATASUNeko ATA-LASETIK GORA	ESKAITZARIK ONENA	0,4	2013
12 IKASTETXEETATIK (12 LOTE), HIRU BERRIKUSI DIRA:								
ALAITZ BHIA (BARANAIN)	42.490	6	30		IREKIA, EUROPAR BATASUNeko ATA-LASETIK GORA	ESKAITZARIK ONENA	20	2014
ASKATASUNA BHIA (BURLATA)	50.479	4					8	
"PLAZA DE LA CRUZ" BHIA (IRUNA)	84.308	8					29	
HEZKUNTZA DEPARTAMentuAREN EGOITZA	115.771	10	50		IREKIA, EUROPAR BATASUNeko ATA-LASETIK GORA	ESKAITZARIK ONENA	22	2013
ERAIKIN JUDIZIALAK	374.157	2	60		IREKIA, EUROPAR BATASUNeko ATA-LASETIK GORA	ESKAITZARIK ONENA	1	2012
FORUZAINGOAK IRUNEAN DUEN POLIZIA-ETXEA	104.206	5	40		IREKIA	ESKAITZARIK ONENA	23,3	2012
BULEGOETARAKO ESPARRU- AKORDIOA EKONOMIA DEPARTAMentuA	(*)	14	100		IREKIA, EUROPAR BATASUNeko ATA-LASETIK GORA	ESKAITZARIK ONENA	(*)	2012
20 ESPEDIENTE, ESPARRU- AKORDIOAREN BABESEAN ESLEITUTAKO 51 LOKALEKIN	1.490.145	(**)	(4-40)	(60-96)		NEGOZIATUA		2012-2015
NAPIETA KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO DEPARTAMentuAREN EGOITZA	138.980	1	40		IREKIA	ESKAITZARIK ONENA	3,1	2015
KARLISMOAREN MUSEOA	13.966	2	-		NEGOZIATUA, EUROPAR BATASUNean PUBLIZITATERIK EGIN GABE	PREZIORIK MERKEENA	15,5	2014

(*) ESPARRU- AKORDIOAN SOILIK EZARTZEN DIRA GERO ESLEITUKO DIREN KONTRATUAK ARAUTZEKO BALDINTZAK, ETA ESLEIPENA HAR DEZAKETEN ENPRESAK HAUTATZEN DIRA.

(**) KASU BAKOITZEAN ESPARRU- AKORDIOAN HAUTATUTAKO LAU ENPRESEK ESKAITZA BANA AURKEZ ZEZAKETEN.

Oro har, lagineko kontratazio-espeditenteak kontratuei buruzko legediaren arabera izapidetu ziren. Egindako fiskalizaziotik hainbat alderdi nabarmendu nahi ditugu. Hona:

- Aztertutako esleipenen lizitazio prezioei eutsi egin zaie edo jaitsi ere egin dira aurreko kontratuen aldean, langileak subrogatzeko betebeharra gorabehera; izan ere, horren kostuak ekar dezake hura handitzea, garbiketaren arloko hitzarmena aplikatzearen ondorioz. Horrek ekarri du, batzuetan, jarduera horretarako bideratutako orduak jaiste edo jardueraren maiztasuna gutxitzea.

- Eraikin judizialen garbiketaren kontratazioan ez dago jasota Tuterako Justizia Jauregi berria berehala hasiko dela lanean; horrek, izan ere, garbitu beharreko azalera bi halako bihurtzea ekarri du. Enpresa esleipen-hartzaileak bere gain hartu zuen eraikin berriaren garbiketa, baldintza berdinetan, kasuko kontratazio-espeditentea izapidetu gabe.

- Behin Ubarmin Klinikaren garbiketarako kontratua hasita, nabarmen handitu zen garbitu beharreko metro koadroen kopurua, kirurgiako bloke berria zerbitzuan hastearekin. Enpresa esleipen-hartzaileak bere gain hartu zuen bloke berriaren garbiketa, baldintza berdinetan, kontratua aldatu gabe.

- Osasun Departamentuaren bi espeditenteen esleipen-prozedura, garaiz hasi arren, luzatu egin da, eta horrek ekarri du kontratua amaitu ondoren ere zenbait hilabetez zerbitzua ematen jarraitzea.

- Hezkuntza Departamentuaren kontratuak arautzen dituzten baldintza-orrietan, bete beharreko gutxieneko eta gehieneko ordu kopuru batzuk aipatzen dira. Gainerakoan, ez da zehazten zein den zerbitzua egoki emateko gutxieneko ordu kopurua.

- Esleipenerako eskaintza teknikoaren zatirik handienaren balorazioa (lanerako programak edo planak, hobekuntzak, ordu-poltsak eta abar) eskaintako ordu kopuruan oinarritzen da funtsean, nahiz eta baldintza-orrietan kopuru bat aipatu ez.

- Kasu batean edo bestean esleipen-hartzaileari eskatutako bermearen zenbatekoa araudian ezarritakoaz gorakoa da.

- Ikastetxeen garbiketarako esleitutako kontratuak araudian ezarritakoaz gorako epean formalizatu ziren.

- NAPIren eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren egoitzaren kasuan, ez dago jasota kontratua luzatzeko aukerarik, eta urtero kasuko espeditentea formalizatzen da.

- Azpimarratzekoa da joera egon dela eskaintza ekonomikoaren puntuazioa nabarmen handitzeko eskaintza teknikoaren puntuazioaren aldean, esleipenerako irizpide gisa. Hartara, esate baterako, 50/50 erako balorazio ekonomiko eta tekniko batzuetatik 80/20 erako eta are 96/4 erako balorazioetara ere pasatu da.

VI.2.2. Kontratazioetarako baldintza-orrien azterketa

Lagineko kontratazio-orrietako alderdietatik garrantzitsuentzat jo ditugunak aztertu ditugu, kontuan izanda adierazgarriak ziren ala ez esleipenen puntuazioetarako, eta erabilgarriak ziren ala ez zerbitzuren prestazioa kontrolatzeko.

Zehazki, baldintza-orrietan kontrolarekin lotutako baldintzak aztertu ditugu, honako alderdi hauei dagokienez: zeregin horretan lan egiten duten langileak, zerbitzuaren betetzea eta haren kalitatea.

LANGILEEN KONTROLA

Kasu guztietan aurrez zerbitzuak ematen zituzten langileak kontratuen esleipen berrian subrogatzeko betebeharra dago.

Baldintza-orri eta eskaintzek informazioa jasotzen dute jarduera honetan arituko diren langileei buruz, funtsean honako hauei dagokienez: haien presentziaren gaineko kontrola; baja kasuetan langileak ordeztzeko betebeharra, eta egoera hori nahiz gainerako aldaketak Administrazio

langileei jakinarazteko betebeharra; langileen prestakuntza eta abar. Alderdi horiek guztiak esleipenean puntuatzen dira aurkeztutako eskaintzen arabera.

Informazio horri dagokionez, honako ondorio hauek atera daitezke, espedienteen aipatutako lagina aztertu ondoren:

- Osasun Departamentuan (Tuteran izan ezik), Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuan esleipendunak ez ditu ezarri langileen presentzia kontrolatzeko behar ziren bitartekoak, eta ez ditu aldizka jakinarazten langileak direla-eta izandako aldaketak eta gorabeherak, nahiz eta alderdi horiek esleipen-hartzaileen eskaintzan egon eta esleipen-prozeduran baloratu diren.

Tuteran (Osasun Departamentua), non esleipen-hartzaileak langileen presentzia kontrolatzeko bitartekoak ezarri zituen, Administrazioak ezin izan du emaitzen azterketarik egin, bitarteko horiek ematen duten informazioaren konplexutasuna dela eta.

- Hezkuntza Departamentutik aztertu ditugun lokaletan, oro har, kontrolerako bitarteko horiek ezarri egin dira, eta haien emaitzak kontrolatzen dira. Hala eta guztiz ere, zentro horietan enpresa esleipen-hartzaileak ez ditu jakinarazten langileak direla-eta gertatzen diren aldaketa eta gorabeherak.

Nabarmentzekoa da, halaber, lokalen erdiak baino ez duela informaziorik ematen langileei buruz, baldintza-orrietan ezarritakoari jarraituz; gainera, kasu batean, enpresak ezezkoa eman dio hori egiteari, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Legea aipatuta, nahiz eta arau horren 6. artikulua, hain zuzen, kontrakoa esaten duen, zeren eta ahalmenak ematen baitzkie Administrazioari datu horiek eskuratu bere eskumenaren esparruko eginkizunak betetzeko.

- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari dagokionez, oro har, kontrolerako bitartekoak ezarri ziren, baina ez ziren emaitzak kontrolatu. Enpresek ez dute txostenik egin langileen aldaketak edo gorabeherak aztertzeko.

Aztertutako lokaletatik bitan –enpresa berari esleituta zeuden– ez ziren bitarteko horiek ezarri, eta enpresa horri eskatu zitzaion haiek ezartzeko; eta aurrerago ezarri zituzten.

ZERBITZUAREN EXEKUZIOAREN GAINEKO KONTROLA

Baldintza-orrietan zerbitzu-ematearen exekuzioari buruzko puntu batzuk jasotzen dira, lizitzaileek aurkeztutako eskaintzetan zehazten direnak.

Alderdi horiek direla-eta, esleipenerako puntuazio bat ematen da, eta funtsean honako hauekin daude lotuta: eskaintzaile bakoitzak egiteko konpromisoa hartzen duen ordu-kopurua; garbiketa arruntak eta bereziak eskatzen duten lan-programa eta ordu-poltsa; erabiliko diren produktu-motak; produktu jakin batzuen horniduraz arduratzea ala ez arduratzea (komuneko papera, xaboa eta abar); hobekuntzak aurkeztea, eta abar.

Alderdi horiei buruz egindako fiskalizaziotik, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari dagokionez, oro har, egindako orduak ez dira kontrolatzen. Hala eta guztiz ere, langileen kontrolerako bitartekoak ezarri ez zituen enpresa baten kasuan, antzeman zen egindako orduak kontratuan jasotakoak baino gutxiago zirela; hori dela eta, geroko fakturretan beherapena egin zen, 6.751 eurokoa.

Gainerako alderdiak, oro har, kontrolatu egiten dira eta eskaintzan eta baldintza-orrietan ezarritakoa betetzen da. Kasu batean, Administrazioak zenbait ez-betetze antzeman zituen; hori zela eta, 2015ean kontratua ez zen berritu.

- Aztertu ditugun Hezkuntza Departamentuaren lokaletan, oro har, gainbegiratzen dira bai langileen kontrolerako bitartekoen emaitzak eta hornitutako produktuak, bai garbiketa berezietan egindako orduak ere, nahiz eta zeregin berezietan emandako orduak ez diren beti kontrolatzen. Horri dagokionez, esan beharra dago kasu batean fakturak gerarazi egin zirela, ordu arruntak ez betetzeagatik. Enpresa esleipen-hartzaileak aurrerago egin zituen ordu horiek.

- Osasun Departamentuaren espedienteen, Tuterako kasuan eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren eraikin judizialen kasuan izan ezik, egiaztatu dugu ezen, orokorrean, ez dela egindako orduen gaineko kontrolik egiten.

- Kulturako, Turismoko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan eta NAPIIn arduradunak kontrolatzen ditu baldintza-orrietan jasotako alderdi guztiak. Gaur egun pertsona horrek jada ez du departamentu horretan lan egiten, eta horren ondorioz ez da kontrolik egiten.

- Egiaztatu dugu aztertutako kontratu guztietan luzapenak daudela, salbu eta esparru-akordioaren babesean esleitutako espedienteen lagineko bi kasutan, zeinak enpresa berari esleituta baitaude, zerbitzua ematean gertatutako gabeziengatik, eta NAPIren eta Kulturako, Turismoko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren egoitzaren garbiketari dagokion espedienteen, zeren eta urtero izapidetzen baita.

- Oro har, aztertutako kontratuetako bakarrean ere ez da aipatzeko moduko gorabeherarik aurkitu zerbitzu-ematean.

ZERBITZUAREN KALITATEAREN GAINEKO KONTROLA

Baldintza-orri eta eskaintzetan, oro har, zerbitzu-ematearen kalitateari eta haren kontrolari buruzko puntu batzuk jasotzen dira.

Alderdi horiek, zeinak ez baitira beti sartzen baldintza-orri guztietan, honako hauekin daude lotuta, funtsean: Administrazioak aldizka gainbegiratze- eta kontrol-lanak egitea; esleipen-hartzaileak kontratu-egileari kalitate-kontrolak eta adierazleen neurketak aurkeztea; asebetetze-ari buruzko azterlan edo inkestak eta abar.

Alderdi horiei buruz egindako fiskalizaziotik, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren kasuan izan ezik, lehen azaldu ditugun baldintza-orrietako puntuak ez dira, oro har, betezen.

- Nabarmendu beharra dago ezen 2014an O-NOZek zenbait alderdiri buruzko asebetetze-inkestak egin zizkiela gaixoei senda-agiria jasotzeko unean, besteak beste gelen eta zentro ba-koitzeko egoitzen garbitasunari buruzkoak.

Zehazki, laginaren barruan honako hauek sartu ziren: Nafarroako Ospitalegunea (Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjina Ospitalea eta Ubarmin Klinika), Tuterako Reina Sofia Ospitalea eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalea. Txanda bat ekainean eta uztailan egin zen, eta bestea urrian eta abenduan.

Inkesta 2.722 gaixori helarazi zitzairen, eta ehuneko 38k erantzun zuen. Lortutako emaitzak honako hauek izan ziren, kontuan izanda kalitatea 1etik 10era bitarteko puntuazioarekin ebaluatu behar zela:

	Gelaren eta komunaren garbitasuna	Ospitalearen garbitasuna
Nafarroako Ospitalegunea		
Nafarroako Ospitalea	8,3	8,5
Bideko Ama Birjina Ospitalea	7,5	7,6
Ubarmin Klinika	8,5	8,8
Reina Sofia Ospitalea (Tutera)	8,1	8,4
García Orcoyen Ospitalea (Lizarra)	8,8	8,8
O-NOZ, GUZTIRA	8,2	8,3

Nabarmenezkoak dira O-NOZen ospitale guztietan lortutako ehuneko handiak; izan ere, gaixoen garbitasuna dela-eta duten asebetetzearen batez besteko puntuazioa zortzitik gorakoa da, bai egon diren gelari eta bertako komunari dagokienez, bai zentroko instalazioei dagokienez ere.

VI.3. METRO KOADRO ETA GARBIKETA-ORDU BAKOITZAREN KOSTUAREN KALKULUA

Lagineko espediente bakoitzerako esleipenaren urteko kostua kalkulatu dugu, metro koadro eta garbiketa-ordu bakoitzeko, honako datu hauek erabilita:

- Esleipenaren urteko zenbatekoa. BEZa kendu dugu, konparazioetan distortsioak saihesteko, aztertutako urteetan zerga horren tasak aldatu direlako.
- Esleipenaren unean garbiketa kontratatzen deneko azaleraren metro koadroak.
- Esleipen-hartzaileak aurkeztutako eskaintzaren arabera kontratatutako garbiketa-orduen kopurua; halakorik badago, "ordu-poltsan" hobekuntza gisa eskaintako orduak.

Lortutako emaitzak baloratzeko, ondokoak hartu behar dira kontuan: instalazio bakoitzaren berariazko ezaugarriak; patio, terraza, soto edo ebakuntza-geletako azalera, baldin eta haien garbiketaren maiztasuna edo intentsitatea nabarmen desberdina bada eta egindako kalkuluetan zuzeneko eragina badu; kasu bakoitzean erabili beharreko materiala eta abar. Zentroen arteko desberdintasuna arintzeko, orduen ratioa metro koadroen arabera lortu da, nahiz eta aurreko faktore guztiek jarraitzen duten lortutako zenbatekoetan zuzeneko eragina izaten.

Hona lortutako emaitza:

Departamentua:	Urteko kostua			Esleipen-urtea
	Metro koadro bakoitzeko	Ordu bakoitzeko	Urteko orduak / m ²	
Osasuna				
1. lotea: Lizarrako osasun eskualdea	46,25	21,41	2,16	
2. lotea: Tuterako osasun eskualdea	34,35	20,20	1,70	
3. lotea: Ubarmin Klinika	32,92	20,15	1,63	2012
4. lotea: Vianako Printzea eta San Martín Dokto- rea zentroak	40,80	22,50	1,81	
Osasun mentaleko zentroak	29,02	19,83	1,50	2013
Departamentu bakoitzaren batez besteko kostua	36,67	20,82	1,76	
Hezkuntza				
Alaitz BHla	8,23	15,51	0,53	
Askatasuna BHla	8,64	16,23	0,53	2014
“Plaza de la Cruz” BHla	8,69	15,64	0,56	
Departamentuaren egoitza	11,88	14,20	0,84	2013
Departamentu bakoitzaren batez besteko kostua	9,36	15,39	0,61	
Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegua*				
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Zerga Agentziaren bulegoak	21,72	19,30	1,13
62/2012 espediente	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bulegoak	17,24	18,70	0,92
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bulegoak	10,12	17,99	0,56
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bulegoak	21,32	14,32	1,49
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bulegoak	24,36	16,11	1,51
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bulegoak	19,52	14,49	1,35
63/2012 espediente**	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bulegoak	24,23	17,12	1,42
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Lizarrako bulegoa	16,07	14,14	1,14
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Tafallako bulegoa	30,52	15,29	2,00
	Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Tuterako bulegoa	13,45	13,93	0,97
46/2013 espediente**	Sustapen Departamentuaren bulegoak	17,86	17,95	0,99
48/2013 espediente**	Nafarroako Artxibo Nagusiaren bulegoak	17,18	17,10	1,00
53/2014 espediente**	Nafarroako Errege Artxiboa eta Artxibo Nagusia	16,30	16,23	1,00
Departamentu bakoitzaren batez besteko kostua		19,22	16,36	1,19
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea				
Foruzaingoak Iruñean duen polizia-etxea	10,85	19,27	0,57	2012
Eraikin judizialak	19,84	19,95	0,99	2014
Departamentu bakoitzaren batez besteko kostua	15,35	19,61	0,78	
Kultura, Turismoa eta Erakundeekiko Harremanak				
Karlismoaren Museoa**	8,89	11,68	0,76	2014
NAPI eta departamentuaren egoitza	13,10	17,04	0,77	2015
Departamentu bakoitzaren batez besteko kostua	11,00	14,36	0,77	

* Departamentu honetan kostuen adierazleak lortu dira aztertutako espedienteetan sartutako lote bakoitzerako; lote bakoitza lokal desberdin bati dagokio.

** Urteko orduen zenbatespen batzuk egin dira, baldintza-orrietan eta esleipen-hartzaileen eskaintzetan ageri den informazioari jarraituz.

Lortutako emaitzetatik ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Lortutako emaitzak ez dira konparagarriak, zeren eta laginean sartutako instalazioak heterogeneoak baitira azalera motari, garbiketaren maiztasunari zein intentsitateari, behar den materialari eta abarrei dagokienez.

Aurrekoa gorabehera, lortutako emaitzak modu guztiz deskriptiboan aztertu ditugu.

- Departamentu bakoitzaren metro koadro bakoitzeko urteko batez besteko kostua nabarmen desberdina da departamentutik departamentura, eta Hezkuntza Departamentuko 9,36 euroko prezioetik Osasun Departamentuko 36,67 euroko preziora bitartekoa da.

Balio merkeenak, 8,5 euro ingurukoak, Hezkuntza Departamentuko institutuei eta Karlismoaren Museoari dagozkienak dira.

Bestalde, Osasun Departamentuko ospitaleetako metro koadroaren kostua da garestiena, 40 euro ingurukoa baita.

Emaitza logikoa da, aipatu dugun bezala, antolamendu horien ezaugarri bereziak direla eta (ebakuntza-gelak, ospitaleratzeko solairuak eta abar), non denbora gehiago eman behar baita gainerako departamentuetan baino, horrek daukan kostuarekin. Izan ere, aurreko taulan ikusi den bezala, metro koadro bakoitzeko orduen ratio handiena 1,76koa, Osasun Departamentuari dago; gainerakoak, berriz, 0,7 ingurukoak dira, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren kasuan izan ezik, non balioa 1,19 euro ingurukoa baita.

- Ordu bakoitzaren kostuari dagokionez, lortutako emaitzak askotarikoak dira, Kulturako, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuko 14,36 euroko prezioetik Osasun Departamentuko 20,82 euroko preziora bitartekoak. Kasu honetan, departamentuen arteko aldeak ez dira aurreko adierazlean ageri direnak bezain aipagarriak.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak behin-behineko txostena egin du Foru Administrazioan garbiketa-zerbitzua 2010etik 2014ra bitartean kontratatzeari buruz. Txosten hori berriki igorri didate, alegazioak aurkez ditzadan. Bada, iruzkin bat egin nahiko nuke, 2010etik 2014ra bitartean kanpoko enpresekin kontratatutako garbiketa-zerbitzuaren gastuaren bilakaera dela eta.

Txosteneko 15. orrialdean ageri den taulan, ikusten da gastuak nabarmen egin duela gora 2013tik 2014ra. Gastuaren igoera ia 400.000 eurokoa da, eta, aurreko urtekoarekin alderatuta, % 2,6 handiagoa izan da. Horren azalpena da 2014. urtean zehar osasun-azpiegitura berriak abian jarri direla. 2014aren hasieran, Nafarroako Ospitaleguneko C pabilioi berria hasi zen lanean, non onkologiako eguneko ospitalea eta onkologiako, hematologiako eta endokrinologiako ospitaleratzere-eremuak baitaude. Halaber, urte bereko urriko lehen egunetan, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eraikin berria jarri zen abian.

Bi instalazio horien ondorioz egunero garbitu beharreko metro koadroen kopuruak gora egin du nabarmen aurreko egoeraren aldean, eta horrek bere eragina izan du Osasun Departamentuaren garbiketa-gastuan. Izan ere, Osasun Departamentuaren gastua 2013an Foru Administrazioaren gastuaren % 64 izatetik 2014an % 66 izatera pasatu da.

Zure esanetara nago erakunde horretatik behar diren azalpen guztietarako.

Osasun kontseilaria: Marta Vera

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilari ohiak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako oharren edukiarengatik.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

